



**Ikastolen emendakin, ohar, galderak –  
Batzorde eragilearen erantzunak**  
*Amendements, remarques, questions des ikastola –  
Réponses du Conseil Exécutif*

**2023-24 NORABIDEAK – ORIENTATIONS 2023-24**

**1. SARITZA / Introduction**

**LOT :**

1. lerroan “osorik” hitza kendu: Gaur egun brebeta ez baita osorik euskaraz, Historia-Geografia-Irakaskuntza Morala eta Hiritarraren dokumentuak frantsesez baitira (azterketa egunean).

*Dans la 1ere ligne, supprimez le mot “totalement”, le brevet n'est pas complètement en basque, puisque les documents de l'Histoire - Géographie et Enseignement Moral et civique sont en français (lors de l'examen).*

**Batzorde eragilearen erantzuna / réponse du Conseil Exécutif**

**Ados.**

**2. PROIEKTUAK / Les projets**

**Senpereko kolegioa:**

**OIHANA :**

Eraikuntza berri huntan ULIS gela bat izanen dela ohartzen gira, Baionako kolegioak duela bi urte galdetzen duelarik. Baionakoak kanpo kolegio guziek ULIS gela bat dute. Zein da Seaskaren posizioa gai honekiko ?

*Nous constatons qu'il y aura une classe ULIS dans cette nouvelle construction, alors que le collège de Bayonne en fait la demande depuis 2 ans. Hormis le collège de Bayonne tous les autres collèges ont une classe ULIS. Quelle est la position de Seaska sur ce sujet ?*

**Batzorde Eragilearen erantzuna :**

**Kolegio bakoitzean IEPa bat behar da. Aldiz horien irekitzea ez dago soilik Seaskaren esku. Baimen administratibo bat behar da, lotua dena ondoko urterako MDPHetik ULIS notifikazio bat duten haur kopuruari.**

**Baionako Eztitxu Robles kolegioan, 2022-2023an IEP bat idekitzeko prest ginen baina ez zen notifikazioa zuen haur aski. 2023/2024 ikasturtean zehar notifikazioa ukanen duten haurrak izanen ditugu Estitxu Roblesen. Hezkunde ministeritzarekin izan ditugun negoziaketen baitan, ikasturte berrian idekiko dugu.**

*Nous avons besoin d'une ULIS pour chaque collège. L'ouverture de ces classes ne dépend pas seulement de Seaska. Une autorisation administrative est nécessaire, liée au nombre d'enfants ayant une notification de la MDPH pour l'année suivante.*

*Au collège Eztitxu Robles de Bayonne, nous étions prêts à avoir un IEP en 2022-2023, mais il n'y avait pas assez d'enfants avec une notification. En cours d'année 2023/2024, nous aurons des enfants qui seront notifiés à Estixu Robles. Dans le cadre des négociations que nous avons eues avec le ministère de l'Éducation, nous l'ouvrons dès la rentrée.*

#### **ESTITXU ROBLES kolegioa :**

Heldu den urtean, Seaskako bost kolegioetatik, lauek IEP gela bat ukanen dute. Baionako Estitxu Robles kolegioan ere IEP gela bat aurreikustea nahi genuke, beharrak hor baititugu.

*L'année prochaine, sur les cinq collèges de Seaska, quatre disposeront d'une classe ULIS. Au collège Estitxu Robles, nous souhaiterions également en prévoir une car nous avons des besoins.*

#### **Gorago erran bezala, irailean irekiko da.**

*Comme mentionné plus haut, nous l'ouvrons en septembre.*

#### **OIHANA :**

Beskoitzeko ikastolaren eraikuntza proiektua sartzea ez ahanzi bai eta ere Eztitxu Robles kolegioaren C eraikuntza.

*N'oubliez pas d'inclure le projet de construction de l'ikastola de Beskoitze ainsi que la construction du bâtiment C du collège Eztitxu Robles.*

#### **Gai hauek Ikastolen Egoitzako dokumentuetan atzemanen dituzue.**

*Vous trouverez ces sujets sur le document d'Ikastolen Egoitzak.*

#### **ESTITXU ROBLES kolegioa :**

Beskoitzeko Ikastolaren egoera, laster aterberik gabe izanen dena eta kontutan hartu beharrekoa.

*Situation de l'ikastola de Briscous qui sera bientôt sans abri et qui est à prendre en compte.*

#### **Ikastolen Egoitzaren dokumentuetan.**

*De même voir les documents d'Ikastolen Egoitzak*

Estitxu Robles Kolegioko obren azken partea. "C" eraikuntzaren berritzeko obrak ez dira aitzin ikusiak dokumentuan. Gaur egun den ikasle kopurua doi doia berrituak izan diren geletan sartzen da eta C eraikuntzaren berritze gabe laster arazoak izanen ditugu ikasle guziak aterbetzeko. Proiektu hau ere arretaz segitzea eskatzen.

*Dernière partie des travaux du Collège Estitxu Robles. Les travaux de rénovation de la construction « C » ne sont pas prévus dans le document. Le nombre actuel d'élèves rentre dans des salles qui ont été à peine rénovées et sans la rénovation de la construction C, nous aurons bientôt du mal à héberger l'ensemble des élèves. Demande que ce projet soit suivi avec attention.*

#### **Ikastolen Egoitzaren dokumentuetan.**

*Voir les documents d'Ikastolen Egoitzak*

#### **BESKOITZE :**

Domaia iruditzen zaigu gure Beskoitzeko ikastolaren proiektua ez agertaraztea aurtengo proiektuetan. Bi lerro aski ginezake.

*Nous pensons qu'il est dommage de ne pas mentionner le projet de l'ikastola de Beskoitze dans les projets de cette année. Deux lignes suffiraient.*

**Ikastolen Egoitzako 2023/2024 norabide eta aurrekonduan lehentasuna du Beskoitzeko ikastolak. Seaskako norabideetako sarhitzan ere esaldi bat gehitzea proposatzen dugu : „Azken urteetako gatazkaren ondoren, Beskoitzen ikastola bizirik atxikitzeke aterabidea proposatu dugu, ikastola berria eraikitzea gure gain hartuz. Espero dugu Herriko etxea aukeraz baliatuko dela aterabide duina emateko. Zer gerta ere, gaia hurbiletik segitu beharko dugu eta ahalegin guziak egingen ditugu Beskoitzeko ikastola bizi dadin“.**

*Sur le budget prévisionnel et les orientations d'Ikastolen Egoitzak l'ikastola de Beskoitze est prioritaire. Nous proposons également d'ajouter une phrase dans le préambule des orientations de Seaska : «Après le conflit des dernières années, nous avons proposé une solution pour l'ikastola de Beskoitze, en prenant à notre charge la construction de la nouvelle ikastola. Nous espérons que la mairie se saisira de l'occasion. Quoi qu'il arrive, nous devons suivre le dossier de près et nous mettrons tout en œuvre pour que l'ikastola de Beskoitze vive".*

#### **Lizeoaren etorkizuna:**

#### **LEKORNE :**

- Lizeoa aski handia izanen dea formakuntza berriak proposatzen badira?

*Est-ce que le lycée sera assez grand pour accueillir des nouvelles formations ?*

**Erran bezala lantalde bat martxan da primadera huntatik Lizeoaren etorkizunari buruz gogoetatzeko. Lehen gogoetetan zein formakuntzari buruz joan lantzen ari gara. Ondotik formakuntza horiek non eta nola egin gogoetatu beharko dugu.**

*Comme nous l'avons précisé, un groupe de travail se réunit depuis ce printemps pour réfléchir à l'avenir du Lycée. Nous travaillons sur les formations vers lesquelles nous devons nous orienter. Ensuite, nous devons réfléchir sur le lieu et comment faire ces formations.*

- Barnategia handitzeko xederik ba ote da?

*Y-a-t-il un projet d'agrandissement de l'internat ?*

**2023-2024 ikasturtean landu beharreko gaia dugu.**

*Ce sujet sera travaillé en 2023-24.*

### **ETXEPARE LIZEOA :**

Paragrafo horren bukaeran proposatzen dugu hori gehitzea :

«Han artean, heldu den sartzerako, lizeoaren garapenari aurre egiteko baliabide eta material berriak beharko dira (gutierrez bi ikasgela)».

*Nous proposons de rajouter à la fin du paragraphe :*

*«Entre temps, la rentrée prochaine nécessitera de nouveaux moyens et matériels pour faire face au développement du Lycée (au moins deux salles de classe)».*

**Ikastolen Egoitzako norabide eta aitzinkonduan aitzinikusia da. Bi gela gehituko ditugu, Euskal Elkargoarena den lizeo aitzineko lurretan. Aste huntan ukan berri dugu adostasuna.**

*Cela est prévu sur le budget prévisionnel et les orientations d'Ikastolen Egoitzak. Nous ajouterons deux classes sur le terrain appartenant à la CAPB devant le lycée. Nous venons tout juste d'avoir l'accord.*

### **HAURTZAINDEGIAK :**

#### **ORTZAIZE :**

"Euskaraz murgiltzean ariko diren haurtzaindegi eta haurtzain etxeen garapena landu beharreko gaia ukanen dugu ere".

Gure eskualdean, beste ainitz tokitan bezala, hautzaro ttipi mailan murgiltze-eredu proposamen eskasa pairatzen dugula dudarik ez dugu. Seaskak hori ohartaraztea, jakinaraztea eta salatzea interesgarria iduritzen zaigu. Alta Euskararen gaiak ez duela mugarik ohartarazi nahi dugu: euskara aisialdiaetan, unibertsitatean ,...etab. Badakigu ere gaur egun ikastola ainitzek ez dituztela baldintza onak lanean aritzeko; Adibidez eta bereziki Beskoitzeko ikastolaren egoerak kezkatzen gaitu; Ez ote du Seaskak jadanik duen esparruan egon behar, (dugunaren hobetzeko eta ez dugunaren salatzeko)? Konkretuki lan hori nola eramanen den pentsatua ote da?

*Le développement des crèches et Maisons d'Assistantes Maternelles immersives en euskara est également un sujet sur lequel nous devons travailler"*

*Il est certain que dans notre secteur comme dans bien d'autres, nous souffrons d'un manque de proposition de modèle d'immersion au niveau de la petite enfance. Il nous semble intéressant que Seaska le remarque, le communique et le dénonce. Nous voulons faire comprendre que le thème de la langue basque n'a pas de frontières : la langue basque dans les loisirs, à l'université, etc. Nous savons aussi qu'aujourd'hui beaucoup d'ikastola n'ont pas de bonnes conditions de travail ; par exemple, et nous sommes particulièrement préoccupés par la situation de l'ikastola de Briscous ; est-ce que Seaska ne doit pas rester dans son domaine ? (pour améliorer l'existant et dénoncer ce que nous n'avons pas) ? Concrètement comment va être mené ce travail ?*

**Hurtzaindegia euskaldunei buruz gogoetatzea proposatzen dugu ikasturte berrian. Gaur egun haur-hezkuntzan haurren %15 eskolatzen dugu murgiltzean, eta eskola publiko eta pribatuak %5, orotara %20. Aldiz, hurtzaindegia eta hurtzainen eskaintza euskalduna %5ekoa baizik ez da. Geroztik eta haur gutiago sortzen delarik, geroztik eta biztanle gehiago heldu delarik kanpotik, hurtzaindegien eskaintza euskalduna handitzea ezinbestekoa dugu, hori izanen baita ikastolen iturria. Horrez gain, hainbat eskualdeetan egoera sozio-linguistikoa aldatzen ari da eta familia transmisiorik ez delarik, haurrak hurtzaindegiko adinetik hizkuntzan sartzeak hobetzen du haur hezkuntzan eramaten dugun lana. „Konkolotx“ hurtzain etxe eta hurtzaindegia euskaldunen federazioa sortu berri da, baina momentuz ez du instituzio publikoen laguntzarik. Seaskak, nola balia dezake bere pisua eta bere sarea Konkolotx laguntzeko?**

**Beskoitzeri buruz gorago erantzun dugu. Orohar, ikastoletan baldintzak egokiak dira. Handitzen ari diren ikastola berrietan aterabideak bilatu beharko ditugu instituzio publikoekin Ikastolen Egoitzako norabideetan agertzen den gisan.**

*Nous proposons de réfléchir sur les crèches et MAM bascophones au cours de la nouvelle année scolaire. Aujourd'hui, nous scolarisons près 15 % des enfants de maternelle et les écoles publiques et privées 5 %; soit 20 % du total de maternelles sont en immersion. En revanche, l'offre des assistantes maternelles et des crèches bascophones n'est que de 5 %. Compte tenu qu'il y a de moins en moins d'enfants et de plus en plus d'habitants venant de l'extérieur, il est indispensable d'augmenter l'offre bascophone de la petite enfance, car ce sera la source des ikastola. En outre, dans plusieurs secteurs, la situation socio-linguistique est en train de changer et, sans transmission familiale, l'immersion des enfants dans la langue dès le plus jeune âge améliore le travail que nous menons à la maternelle. Comment Seaska peut-elle utiliser son expérience et son réseau pour aider Konkolotx ?*

*Nous avons répondu plus haut sur Beskoitze. En général, dans les ikastola, les conditions sont satisfaisantes. Dans les nouvelles ikastola en développement, il faudra trouver des solutions avec les pouvoirs publics, telles qu'elles sont présentées sur les orientations d'Ikastolen Egoitzak.*

### 3. EUSKARA :

---

#### LOT :

Sarreran idatzi den bezala, inkesta soziolinguistikoak dio euskararen erabilpenaren egoera kezagarria dela.

*Comme indiqué dans l'introduction, l'enquête sociolinguistique indique que la situation de la pratique de la langue basque est préoccupante.*

Galdera : Zer egiten du Seaskak horri buruz ?

*Que fait Seaska par rapport à cela ?*

**Dakizuen bezala azken urteotan Euskara Planaren baitan plangintza oso bat daramagu kanpo espazioaren lanketan, burasoekin Euskaraz Bizirekin, langileen formakuntzan eta euskara programaren inguruan irakasleekin, ahozko frogetan eta abar. Seaskan bi langile dira euskara planean berezituak baina egoera diglosiko bortitzari aitzin egiteko denen inplikazioa beharko dugu, burasoena, langileena eta irakasleena.**

*Comme vous le savez, ces dernières années, dans le cadre du Plan Euskara, nous menons un travail sur la transformaton de l'espace extérieur, avec les parents de la commission Euskaraz Bizi, la formation du personnel et autour du programme de langue basque avec les enseignant.e.s, les épreuves orales, etc. A Seaska, il y a deux techniciennes spécialisées dans le plan euskara, mais pour faire face à la situation diglossique extrême, nous aurons besoin de l'implication de tous, parents, salarié.e.s et enseignant.e.s.*

#### LEKORNE :

- **3.2 Euskara plana**

Brebetako euskara hizkuntza azterketan B1 ala B2 maila neurtzeko xedea da?

*Quel est le niveau linguistique qui sera évalué au brevet : B1 ou B2 ?*

**Kolegioko 3. bukaerako azterketa B2 mailakoa izanen da.**

*L'examen de fin de troisième est de niveau B2.*

Buraso erdaldunak euskalduntzera bultzatzeko eta horretan inplikatuagoak izateko gogoeta bat eraman beharra iduritzen zaigu (AEK-rekin elkar lanean hainbat kurtso "behartu" haurraren ikastolako izen ematearekin batera edo beste)

*Il nous semble nécessaire de mener une réflexion pour encourager et impliquer davantage les parents non bascophones à apprendre le basque (plusieurs cours "forcés" en collaboration avec AEK en même temps que l'inscription à l'ikastola de l'enfant).*

**Ez dugu uste jendea euskara ikastera “behartzea” aterabidea denik. Ez baitu nehork bortxaz euskara ikasiko.**

*Nous ne pensons pas que ce soit une solution de forcer les gens à apprendre le basque. Personne n'apprendra le basque par la force.*

## **ORTZAIZE**

- **ikasgeletan**

*..."Heldu den urteari begira, soilik hizkuntza maila neurtzeko erronkari lotuko gatzaizkio, B2 maila frogatzeko azterketa bat proposatuz. Kolegioko programaren progresioa zehazten eta adosten joan arau, azterketaren bigarren atala bideratuko dugu. "...*

Euskararen mailaren arrangura partekatzen dugu. Euskararen maila beheiti doala iduritzen zaigu: horren ondorioz jakin dugunaren arabera E.G.A.-ren idatzizko azterketaren heina beheititzen ari dira, iaz Etxepareko lizeoko gazteetan % 40ak etxamin hori ukan du. Seaskak euskara maila zorrotza atxik dezan inportanta iduritzen zaigu.

*... L'année prochaine, dans un premier temps, nous ne mesurerons que le niveau linguistique en proposant un test de niveau B2. Au fur et à mesure que nous définirons et adopterons la progression du programme du collège, nous fixerons la deuxième partie de l'examen. "...*

*Nous partageons l'inquiétude au sujet du niveau linguistique de la langue basque. Il nous semble que le niveau baisse : le niveau des écrits de EGA baisse. L'année dernière 40 % des élèves d'Etxepare ont eu cet examen. Il nous semble important que Seaska garantisse le niveau linguistique.*

**EGA helduendako goi mailako azterketa bat da, baina gure ikasleek Lehenean, 17 urterekin aurkezten dute. Azterketa zorrotza da, geroz eta ikasle gehiagok aurkezten dute eta proportzionalki lorpen maila apaltzen ari da. Gisa berean euskara maila jendartean apaltzen ari den gisan. Zuen kezkarekin bat egiten dugu.**

*EGA est un examen de niveau supérieur pour adultes, mais nos élèves le présentent à l'âge de 17 ans. L'examen est très rigoureux, de plus en plus d'élèves le présentent et le niveau de réussite diminue en proportion. De même, le niveau de basque diminue dans la population. Nous partageons votre inquiétude.*

## **LOT :**

Ikasgeletan: ahozko froga → nola hobetu tresna, nola harmonizatu?

Zuzendariei proposatu zen formakuntza, pedagogi egunaren bidez egitea proposatzen da. Xuxtut ahozko froga pasarazten direnei zuzendua behar zaie.

Joan den urte bukaeran, eskaera egin zen erakasleak laguntzeko, kanpoko laguntza galdegitea, neutraltasuna segurtatzeko.

Aldiz lehenetsi eta adostu behar litzateke edo talde bat edo maila bat. Ez litzateke orokortuko ikastola guzietara baina zinez antolaketa berezi eta konplikatu den ikastoletan proposatu behar litzateke laguntza hori.

Ahozkoen pasaraztea, buruz buru denbora anitz eskatzen du, beste ikaskideak uzten dira ere bai ber momentuan.

*En classe: test oral → comment améliorer l'outil, comment l'harmoniser ?*

*Il est proposé que la formation qui a été dispensée aux directeur.trice.s soit proposée lors d'une journée pédagogique. Elle doit s'adresser essentiellement à ceux.celles. qui font passer les tests.*

*A la fin de l'année dernière, il avait été demandé pour aider les enseignant.e.s de solliciter une aide extérieure afin d'assurer la neutralité.*

*Il faudrait plutôt privilégier et convenir d'un groupe ou d'un niveau. Il ne serait pas généralisé à l'ensemble des ikastola mais devrait être proposé dans les ikastola où l'organisation est vraiment particulière et compliquée.*

*Faire passer les oraux demande beaucoup de temps de face à face et en même temps on abandonne un peu les autres camarades de classe.*

**Lehen mailako 5. urtekoei euskarazko ahozkoak pasarazten dizkiegu, euskara maila ezagutzeko eta beharrez ondoko urteetan neurriak hartzeko. Ikasturtearen antolaketan kontutan hartzeko mementu bat izan behar da eta ez azken mementuan antolatuko den gertakari bat. Irakasleen plagintzan eta langileen plangintzan kontutan hartu beharko da. Aurten zuzendariei formakuntza bat proposatu zaien bezala, heldu den ikasturtean irakasle berriei hastapeneko formakuntzan modulo bat proposatzea aitzinikusten dugu. Aldiberean, formakuntza jarraikiaren bidez ahozko frogen harmonizatzeko helburuarekin saioak proposatuko dira.**

*Nous faisons passer les oraux en langue basque aux élèves de CM2 afin de connaître leur niveau de basque et si besoin afin de prendre des mesures dans les années suivantes. Il faut en tenir compte lors de l'organisation de l'année scolaire. Ce temps consacré au passage des oraux doit être pris en compte dans la planification des enseignant.e.s et des salarié.e.s.*

*Une formation a été proposée cette année aux directeur.trice.s, nous envisageons de proposer aux nouveaux.elles enseignant.e.s un module lors de la formation initiale. Parallèlement, par le biais de la formation continue des sessions seront proposées dans le but d'harmoniser les tests oraux.*

**LOT :**

**Gehit beltzatua dena / rajouter la phrase en gras**

“ Bestalde, ikasturte honetan lizeoko euskara irakasleek euskara irakasgaiaren programa eta progresioa landu dute. Lan horretarako irakasleek orenak libratu ahal izan dituzte. Heldu den urtean lizeoan berezitasunen eta sail profesionalaren programa bururatzea dute helburu. **Hori egiteko lan denboraren zati bat libratuko zaie bi irakasleri.** Ildo beretik, 2023-2024 ikasturtean ariketa abiatuko dugu kolegioetako euskara irakasleekin, horietariko bik lan denboraren parte bat libratzeko aukera izanen dutelarik seigarrenetik hirugarrenera bitartean euskara irakasgaiaren programa eta progresioa zehazteko”.

*“Par ailleurs, au cours de cette année scolaire, les professeurs de basque du lycée ont travaillé sur le programme de la matière de basque et la progression. Pour ce travail, les professeurs ont pu libérer leurs heures. L'année prochaine, ils ont pour objectif d'achever le programme de la section professionnelle du lycée et les spécialités. **Pour ce faire, une***

*partie du temps de travail sera libérée à deux enseignant.e.s. Dans le même ordre, au cours de l'année scolaire 2023-2024, nous débuterons un travail avec les professeurs de basque des collèges, dont deux auront la possibilité de libérer une partie du temps de travail pour définir le programme et la progression de la matière de basque entre la sixième et la troisième."*

**Ados. Hala aitzinikusia da.**

*Cela est déjà prévu.*

**OIHANA :**

3º-ean proposatua izanen den B2 azterketari buruz zehaztasunak ukaten ahal genituzke ? Aztereketa segituan integratua izanen da? Administrazioetik ezagutua izanen ote da eta unibertsitate batzuetan onartua izateko balioko ote du, Hegoaldean adibidez ?

*Pourrions-nous avoir des précisions sur l'examen B2 qui sera proposé en 3ième? Sera-t-il intégré au contrôle continu? Sera-t-il reconnu par l'administration et pourra t-il servir pour intégrer certaines universités, en hegoalde par exemple ?*

**Hizkuntza azterketak hizkuntza maila eta ikasleek kolegioan euskara irakasgaiaren progresioan jasoko dituzten ezagutzak neurtzea izanen du helburu. Haatik, heldu den urteari begira, soilik hizkuntza maila neurtzeko erronkari lotuko gataizkio, B2 maila frogatzeko azterketa bat proposatuz. Kolegioko programaren progresioa zehazten joan arau, azterketaren bigarren atala bideratuko genuke.**

**Euskara azterketak lehen denbora batean ez luke izanen B2 zertifikaziorik, nahiz eta kanpo aditu batekin abiatua dugun elkarlanaren bidez B2 maila ebaluatzen dugula segurtatzen ahalko dugun. Aitzineko urteetan Hezkuntza Ministeritzak egiten zituen ebaluaketek ere ez zuten balio akademikorik. Proposatuko dugun azterketa irizpide eta kuadro akademikoan egiten dela segurtatzeko unibertsitate baten esku-hartzea lantzen ari gara. Gisa horretan, azterketak balio akademikoa izanen luke (edukiei dagokienez eta aztertzaileen esku-hartzeari dagokionez), eta frogaren zertifikazio ofiziala lortzeko bidean lehen urratsak ematen ahalko genituzke.**

*L'examen de langue aura pour but de mesurer le niveau linguistique et les connaissances que les élèves recevront au collège dans la progression de la matière basque. Cependant, pour l'année prochaine, nous nous attacherons à ne mesurer que le niveau linguistique en proposant un test de niveau B2. Au fur et à mesure que nous définirons la progression du programme du Collège, nous engagerons la deuxième partie de l'examen.*

- **Kanpo espazioan /hors classe – espace extérieur**

#### **BESKOITZE :**

Bizijolasen proiektuaren aurkezpenak xehetasun gehiago merezi dezake. Beskoitzeko ikastolak parte hartzeko izena eman nahi dezake.

*La présentation du projet de Bizijolas mériterait plus d'explication. Bekoitzeko ikastolak souhaitera s'inscrire pour participer.*

**Kanpo espazioari buruzko lanketaren azalpen eder bat atzemanen duzue apirileko Ikastola aldizkarian. Heldu den ikasturterako hautagaitza deialdia laster eginen da eta ikastolek izena emaiten ahalko dute.**

*Vous trouverez une présentation détaillée de l'étude sur l'espace extérieur sur le magazine Ikastolen Aldizkaria d'avril. L'appel à candidature pour la prochaine année scolaire sera bientôt lancé et les ikastola pourront s'inscrire.*

- **Burraoak euskaldundu / Formation de basque de parents**

#### **ORTZAIZE :**

Buraso batek CPF formakuntza barne estado frantsesak AEK-ko lehen urteko maila bakarrik ordaintzen duela ohartarazten du. Bigarren urtetik goiti jadanik kurtsoak ez dira gehiago ordainduak beti CPF horren baitan. Beraz maila hortan ere, beharrak gorriak dira.

*Un parent nous a fait remarquer que dans le cadre d'une formation CPF (compte personnel de formation) seule la première année d'AEK est prise en compte. A partir de la deuxième année il n'y a plus de financement possible pour les cours avec le CPF. Alors dans ce domaine aussi il y a des besoins urgents.*

**CPF eskubideak xahutuak dituen burasoak Seaskaren beka eskuratzen ahal du, finkatu diren baldintzetan sartzen bada (langabezian, diru iturri apalak...).**

*Le parent qui a épuisé ses droits CPF pourra bénéficier de la bourse de Seaska s'il entre dans les conditions fixées (chômage, sources de revenus modestes).*

#### **ETXEPARE LIZEOA :**

Paragrafo horri buruz / concernant ce paragraphe :

- Jakin nahi dugu posible denez azken urteko bilantxo bat ukaitea ?

*Nous voulons savoir s'il est possible d'avoir un bilan de l'année dernière ?*

**Urtero 100etik gora burasok izena ematen dute Aekn. 3 burasok 200 euroko laguntza jaso dute Seaskatik (formakuntzaren kostua 342€), CPF eskubiderik ez baitzuten eta diruiturri irizpideetan sartzen baitziren.**

Chaque année plus d'une centaine de parents s'inscrit à Aek. 3 parents ont reçu de Seaska une aide de 200 euros (sur 342€ de formation), car ils n'avaient pas de droits CPF et entraient dans les critères de revenus.

- Ongi liteke prozedura bat argitzea urte hastapenean ikastolei igortzeko (nola antolatu, norekin harremanetan sartu, nork egiten du zer ?...)

*Il serait bon de clarifier une procédure à transmettre aux ikastola en début d'année (comment s'organiser, qui contacter, qui fait quoi ?...)*

**Jadanik hala egiten da. Irailean mezua zabaltzen da ikastola guzietara. Seaskako webgunean eskura ezarriko dugu**

*C'est ce qui se fait déjà. En septembre une note est envoyée à toutes les ikastola. Nous le mettrons également sur le site de Seaska.*

#### **LOT :**

Atal bat gehitzea proposatzen da / Il est proposé de rajouter un paragraphe

Xarta : Horrez gain, urte hastapen guziz, euskara xarta buraso guziei ezagutarazi eta izenpetaraziko da. Ahantzi gabe, helduen arteko komunikazio tresnetan ere euskararen erabilpena zainduko dute eta publikoari begira zabaltzen diren komunikazioetan (afitxak adib.)

*La charte : chaque début d'année, les parents devront prendre connaissance de la charte Euskaraz Bizi et devront la signer. Sans oublier qu'ils veilleront également à l'utilisation de la langue basque dans les outils de communication entre adultes et dans les communications diffusées auprès du public (par exemple affiches).*

**Euskara Xarta oinarritzko tresna dugu ikastoletan. Urtero landu eta barneratu behar dena. Euskara teknikariek urte osoan lantzen dute Ikastoletako Euskaraz Bizi komisioekin. Kanpoko komunikazioa, barne komunikazioa bezala, zaindu behar ditugu.**

*La charte Euskaraz Bizi est un outil de base pour les ikastola qu'il faut travailler et s'approprier chaque année. Les techniciennes de la langue basque travaillent toute l'année avec les commissions Euskaraz Bizi des ikastola. La communication externe doit être préservée comme la communication interne.*

LOT :

##### 4.1 : Hezkuntza Proiektua / Le projet pédagogique

Ikastolen pedagogia kontseiluak adostutako baloreak ez dira bermatuak kopuru handiegiekin. Datorren ikasturtean Kolegioetan hainbat ikasgela 31 ikaslerekin osatuak izanen dira. Zein da gaur egun Seaskarentzat kopuru gaindiezina?

*Les valeurs convenues par le conseil pédagogique ne sont pas garanties avec des effectifs élèves trop élevés. L'année prochaine, dans les collèges il y aura plusieurs classes avec 31 élèves. Quel est la limite à ne pas dépasser actuellement à Seaska ?*

**6. etan muga 28 ikaslekoa da, 5.,4.,3. ean 30 ikaslekoa. Nahiz eta mugak horiek izan, Hezkunde ministeritzak ez ditu gelak desdoblatzen ikasle bat edo bi gehiago denean. Bost kolegioen artean 45 dibisio edo gela egingen dira. Bi kolegiotan maila batean 31 ikasle izanen dituzte, baina Seaskatik oren batzuk desdoblatzeko aukera eskaini zaie kolegioei, oren desdoblaketa horiek gure sakeletik ordainduz.**

*En 6ième la limite est de 28 élèves et de 30 en 4ième, 5ième et 3ième. Malgré ces limites, le ministère de l'Éducation ne dédouble pas les classes lorsqu'il s'agit d'un ou deux élèves de plus. Parmi les cinq collèges, il y aura 45 divisions ou salles de classe. Dans deux collèges, il y aura 31 élèves dans un cours, mais Seaska donne la possibilité aux collèges de dédoubler certaines heures en prenant en charge ces heures.*

##### BESKOITZE :

Ez duzue batere aipazten gure langileen/laguntzaileen parte hartzea zuen hezkuntza proiektuan, alta, erakasleen gisa, gure haurren hezkuntzan parte hartze haundia dute. Klasetik kanpo, zer hezkuntza eman gure haurreri ? Gure laguntzaileak nola lagundu eguneroko urratsetan ?

*Vous ne mentionnez pas du tout la participation de nos salarié.e.s à votre projet éducatif. Pourtant tout comme les enseignant.e.s, il.elle.s ont un rôle important dans l'éducation de nos enfants. En dehors de la classe, quel type d'éducation donner à nos enfants ? Comment aider nos laguntzaile dans les démarches quotidiennes?*

**Urtero formakuntzak antolatzen dira Seaskatik ikastoletako langileendako. Gure xedea da formakuntza jarraikia egituratzen eta azkartzen joatea bai langileendako bai eta irakasleendako ere. Burasoak ahanzi gabe.**

**Bestalde, iragan urtean ikastola guztietan hezkuntza taldeak berpizteko eta sortzeko urratsbideak landu eta proposatu genituen hezkuntza proiektua ikastolaz-ikastola gogoetatzeko eta gauatzeko tresna gisa. Hezkuntza taldeetan irakasle, langile eta gurasoen ordezkariak segurtatzea aholkatzen genuen.**

*Des formations sont organisées chaque année depuis Seaska pour le personnel des ikastola. Notre objectif est de structurer et de renforcer la formation continue tant pour le personnel que pour les enseignant.e.s. Sans oublier les parents.*

*Par ailleurs, l'année dernière, dans toutes les ikastola, nous avons travaillé et proposé des pistes pour la création ou la réactivation des commissions éducatives comme outil de réflexion et de mise en œuvre du projet éducatif d'ikastola en ikastola. Nous conseillons d'assurer la représentation des enseignant.e.s, des salarié.e.s et des parents dans les commissions éducatives.*

#### **4.2 : Inkusioa / L'inclusion**

##### **BESKOITZE :**

Arazoak dituzten haurren kopurua emendatu dea ? Diagnostiko bat eginga izan ote da ? Urtez urte, zoin eboluzio ikusten ahal daiteke ?

Le nombre d'élèves en inclusion a-t-il augmenté ? Un diagnostic a-t-il été fait ? D'année en année, quelle est l'évolution ?

**Azken hamarkadan Seaska MDPH notifikazioak dituzten haurren kopurua laukoiztu da eta ondoko urteei begirako aitzinikuspenak bide beretik doaz. Notifikazioen gorakada ezin da soilik azaldu ikasle kopuruaren bilakaerarekin. Jendartean gertatzen ari diren aldeketek gurean ere eragiten dutela ohargarri da.**

**Ikasturte hastapenetik Seaskako inklusio sailaren geroaz eta berrantolaketaz gogoetatzen ari gara ikasleen beharretan ezarritik argia.**

**Ikastola inklusiboaren eredua haurren desberdintasuna eta aniztasuna aintzat hartzea izan behar delakoan gira, haur guztiek beren lekua ukan dezaten ikastolan. Egun indarrean dagoenetik baino (egituraketa, baliabideak, ...) ikasleen beharrei erantzuteko bihar beharko genukeenetik abiatu dugu gogoeta.**

*Au cours de la dernière décennie, le nombre d'enfants ayant des notifications MDPH à Seaska a quadruplé et les perspectives pour les années à venir vont dans le même sens. L'augmentation des notifications ne peut s'expliquer uniquement par l'évolution du nombre d'élèves. On remarque que les changements qui se produisent dans la société ont des incidences dans nos missions.*

*Depuis le début de l'année scolaire, nous réfléchissons sur le devenir et la réorganisation du service inclusion de Seaska en mettant l'accent sur les réponses à apporter aux besoins des élèves.*

*Nous pensons que le modèle de l'ikastola inclusive doit prendre en compte la différence et la diversité des enfants afin que tous les enfants aient leur place à l'ikastola. La réflexion part de ce qu'il nous faudrait demain pour répondre aux besoins des élèves plutôt que de ce qui est actuellement en vigueur (structuration, moyens,...).*

## ARBEROA :

Xehetasun gehiago nahi genituzke antolaketa berriaz. Ekintza plan eta plangintza zehatzago bat, jakiteko nola gauzatuko den xuxen antolaketa berria.

*Nous aimerions avoir plus de détails sur la nouvelle organisation. Un plan d'action et une planification plus détaillé, pour connaître exactement comment la nouvelle organisation sera mise en place.*

***Ikastola inklusiboa pedagogian oinarritu behar dela pentsatzen dugu, eta hargatik antolaketa berriaren bizkarrezurra Irakasle berezitu errefenteak izatea lehenetsi dugu. Zeregin nagusia ikasleen beharren arabera esku-hartze eta egokitzen pedagogikoak proposatzea izanen da. Lehenik ikasleak behatuz, ondotik irakasleak aholkatuz eta azkenik praktiken jarraipena eginez.***

*Nous pensons que l'ikastola inclusive doit être basée sur la pédagogie et c'est pourquoi nous avons donné la priorité à ce que l'ossature de la nouvelle organisation soit composée d'enseignant.e.s spécialisé.e.s. La tâche principale consistera à proposer des interventions et adaptations pédagogiques en fonction des besoins des élèves. D'abord en observant les élèves, puis en conseillant les enseignant.e.s et enfin en assurant le suivi des pratiques.*

***2023-2024 ikasturtea trantsizio urtea izanen da. Inklusio aholkularien orain arteko esku-hartzeak jarraituko du ikastola gehienetan.***

*L'année scolaire 2023-2024 sera une année de transition. L'intervention des conseillères d'inclusion se poursuivra dans la plupart des ikastola.*

***Haatik, antolaketa berria irakasle berezitu bakar batekin hasiko dugu. Kolegioen eskola kartaren sektore bateko hainbat ikastola izanen ditu bere ardurapean. Ikastola horietan esku-hartze berria experimentatzea da gure xedea eta bertatik ondorioztatzea eta xeheki zehaztea Irakasle berezitu erreferenteen zereginak (postu fitxa). Antolaketa berriaren ezaugarriak burutuko dugun experimentazioan oinarrituko dugu.***

*Cependant, nous allons démarrer la nouvelle organisation avec une seule enseignante spécialisée. Elle aura à sa charge plusieurs ikastola suivant la carte scolaire. Notre objectif est d'expérimenter la nouvelle intervention dans ces ikastola et d'en tirer les conséquences et de préciser en détail les tâches des enseignant.e.s spécialisé.e.s référentes (fiche de poste). Les caractéristiques de la nouvelle organisation seront basées sur l'expérimentation que nous réaliserons.*

***Inklusioa pedagogia esku-hartzea egokituz bideratzea lehenesten baitugu, irakasleen formakuntza indartzea da gure xedea. CAPPEI titulua prestatzeko aukera proposatuko diegu interesatuak diren irakasleei. Frantziako Hezkunde nazionalako erreferenteekin harremanetan gira CAPPEI formakuntzaren antolaketa segurtatzeko. Bestalde, formakuntza jarraikiaren bidez pedagogia ezberdinduan sakontzeko eta irisgarritasuna segurtatzeko saioak proposatuko ditugu irakasleei.***

*Puisque nous privilégions l'inclusion en adaptant l'intervention pédagogique, notre objectif est de renforcer la formation des enseignant.e.s. Nous proposerons aux enseignant.e.s intéressé.e.s la possibilité de préparer le diplôme CAPPEI. Nous sommes en contact avec les référent.e.s de l'Éducation Nationale pour assurer l'organisation de la formation CAPPEI.*

*Par ailleurs, par le biais de la formation continue, nous proposerons aux enseignant.es des sessions pour approfondir la pédagogie différenciée et assurer l'accessibilité.*

Nahi genuke jakin ere, nork kudeatuko dituen 4 erakasle berezituak.

*Nous aimerions également savoir qui gèrera les 4 enseignant.e.s spécialisé.e.s.*

**Oraingoz irakasle berezitu bakar batekin hasiko dugu bidea. Hezkuntza zuzendaritzak izanen du ardura.**

*Pour l'instant, nous n'avons qu'une seule enseignante spécialisée. Elle sera sous la responsabilité de la direction éducative.*

**LOT :**

" Beti azken errekurtsua izan beharko da, beste aukerarik ikusten ez denean" = esaldi hau kentzea nahi genuke.

*"Il faudra toujours que cela soit en dernier recours, quand il n'y aura pas d'autre choix"  
= nous voudrions que cette phrase soit retirée.*

**Ados.**

Zertan eragin du konkretuki inklusioari buruzko birmoldaketak 2.mailetan ?

*En quoi la nouvelle organisation de l'inclusion affectera-t-elle concrètement les bigarren maila ?*

**Gogoeta eta lehen urratsak lehen mailan abiatu baditugu ere, heldu den ikasturtean bigarren mailara hedatzeko xedea dugu. Beraz gaur-gaurkoz ez da berehalako aldaketarik izanen.**

*Bien que nous ayons commencé la réflexion et les premiers pas en primaire, nous avons l'intention de l'étendre au secondaire. Il n'y aura donc pas de changement immédiat pour le moment.*

**OIHANA :**

Paragrafo hau sakondua izatea balio luke.

Hobekuntza pedagogikoa aipatzen bada, zein da aztertua izan den pedagogia honen muga ?  
Ba ote da inklusiari begira aztertutakoen txosten bat eta orientazioak agert arazten dituen a eman loturik edukietan edo bestela.

Fomakuntzak : laguntzaileentzat nork ordaintzen ditu ?

*Ce paragraphe mérite d'être approfondi.*

*Si l'on parle d'amélioration pédagogique, quelle est la limite de ce qui a été étudié? Existe-t-il un rapport sur ce qui a été étudié et sur les orientations prises ?*

*Formations : qui paie celle des laguntzaile ?*

**Pedagogia ezberdindua lantzeaz ari gira, egokitzapenak prestatzeaz eta gauzatzeaz, haurren ikaspen beharrei ahalik eta hobekien erantzuteko gisan.**

**Gogoeta eta experimentazioa aitzinatzen joan arau partekatuko ditugu.**

**Formakuntzen finantzaketari buruz, lanketa bat eramaten dugu Hezkunde Nazionalarekin.**

*Il s'agit de travailler sur une pédagogie différente, de préparer et de mettre en place des adaptations afin de répondre au mieux aux besoins d'apprentissage des enfants.*

*Au fur et à mesure de la réflexion et de l'expérimentation, nous les partagerons.*

*Concernant le financement de la formation, nous travaillons avec l'Éducation nationale.*

#### **GARAZI/AZKARATE :**

Talde profesionalaren berrantolaketa aipatzen denean, interesgarria iduritzen zaigu Seaskako Psikologoer bilan psikometrikoak egiteko eskumena emaita.

*Lorsque la réorganisation du groupe professionnel est évoquée, il nous semble intéressant de donner aux Psychologues de Seaska le pouvoir de réaliser des tests psychométriques.*

**2023-2024 ikasturtean burutuko dugun experimentazioaren baitan Seaskako hezkuntza sailean diharduen talde profesionalaren zereginen berrikustea aitzinikusten dugu. Gaur-gaurkoz ezin dugu aitzinatu emaitza zoin izanen den, baina ekarpen guztiak aintzat hartuko ditugu.**

*Dans le cadre de l'expérience que nous mènerons au cours de l'année scolaire 2023-2024, nous prévoyons une révision des tâches de l'équipe professionnelle travaillant au service éducatif. Pour le moment, nous ne pouvons pas prédire quel sera le résultat, mais nous considérerons toutes les contributions.*

Bestalde, inklusioarekiko ikuspegi berria ez da argiki ulertzen, eta berrantolaketa horren diruztatzearen galdera pausatzen dugu ere.

*D'autre part, la nouvelle approche de l'inclusion n'est pas bien comprise, et se pose également la question du financement de cette réorganisation.*

**Irakasle berezitu erreferenteen postuak Frantziako hezkuntza ministeritzak Seaskaren esku uzten duen dotazioaren baitan txertatuak izan daitezen da gure xedea. Heldu den urteetako negoziaketetan solasgai izanen dugu.**

Notre objectif est que les postes d'enseignant.e.s référent.e.s soient inclus dans la dotation que le ministère de l'Éducation nationale alloue à Seaska. Ce sera un des sujets des négociations des années à venir.

#### **LEKORNE :**

Nork eremane ditu formakuntzak? Nork ordainduko ditu bai formakuntzak baita irakasle berezituak?

*Qui va mettre en place les formations ? qui paiera les formations et les enseignant.e.s spécialisé.e.s ?*

**CAPPEI azterketa prestaketa formakuntzari dagokionez DSDENeko inklusio erreferentearekin harremanetan gira sare publikoan irakasleek jaso dezaketen formakuntza segurtatua izan dadin interesatuak diren seaskako irakasleentzat.**

**Formakuntza jarraikiaren baitan proposatuko diren saioak Seaskak dituen beregain hartuko. Irakasle berezituak dagokienez ikus gorago.**

*En ce qui concerne la formation préparatoire aux examens CAPPEI, nous sommes en contact avec le référent inclusion de la DSDEN afin que les enseignant.e.s de Seaska qui seraient intéressé.e.s bénéficient également de la formation que bénéficient les enseignant.e.s du public.*

*Les sessions proposées dans le cadre de la formation continue seront prises en charge par Seaska.*

*En ce qui concerne les enseignant.e.s spécialisé.e.s, voir ci-dessus.*

Irakasle berezituak misioak zerrendatuak izan dira ?

*Les missions des enseignant.e.s. spécialisé.e.s ont-elles été listées ?*

**Ikus gorago eman erantzuna.**

*Voir réponse ci-dessus.*

#### **● 4.3 : Formakuntza**

#### **LOT :**

Emendakin proposamena : “Seaskaren baitan gogoetatuko da zer egin konkurtsoaren pasatzeko baldintzak hobetzeko”.

II. mailatan Seaskako Segitzaileen figura sortu da. Batzuk prest agertu dira ardura horiek hartzeko. Horretara dedikatu orduak, ikastetxean izanen diren irakasle ordezkarien arabera izanen dira. Galdegina da irakasle ordezkarien mugimendua bukatu bezain laster, Segitzaileei informazioa helaraztea. Heldu den urteko irakasle segitzaileen postuak, proiektu edoeta ardurak horren arabera finkatuko baitira.

*Proposition d'amendement : "Au sein de Seaska, on réfléchira comment améliorer les conditions de passage du concours."*

*Dans les secondaires le profil des enseignant.e.s assurant le suivi a été crée. Certain.e.s sont prêt.e.s à prendre ces responsabilités. Les heures consacrées à cela seront en fonction des suppléant.e.s. du collège ou lycée. Il est demandé que dès la fin du mouvement des suppléant.e.s, les informations soient communiquées aux personnes en charge du suivi. L'année prochaine, les postes consacrés au suivi seront définis en fonction des projets et des responsabilités.*

## Ados

### ● 4.4 : Azterketak Euskaraz :

#### ESTITXU ROBLES kolegioa :

Azterketak Euskaraz atalean, apirilean Bordaletik Baionara egin zen bizikleta martxaren aipamena egitea eskatzen dugu. Estitxu Robles kolegioko 3.ko ikasleek sortu eta antolatutako proiektu arrakastatsu hau txalotzekoa dela iduritzen zaigu, gazteek inizatiba eta engaiamendua erakutsi baitute. Gazte berak bihar lizeoan izanen dira eta holako inizatibak asmatu beharko dituzte beraien aldarrikapenekin segitzeko. Txalotu ditzagun!

*Dans le chapitre des examens en basque, nous vous demandons de mentionner la marche cycliste de Bordale à Baiona qui a eu lieu en avril. Nous pensons que ce projet réussi, créé et organisé par les élèves de 3e année du Collège Estitxu Robles doit être valorisé, car les jeunes ont fait preuve d'initiative et d'engagement. Les mêmes jeunes seront demain au lycée et devront proposer de telles initiatives pour poursuivre leurs revendications. Applaudissons-les !*

**Bistan dena txalotzekoa dela heien ekimena. 2022-2023ko txosten moralean azpimarratu beharko dugun gaia.**

*Il est évident que nous devons les féliciter. Le sujet sera traité lors du rapport moral et d'activité de l'année scolaire 2022-23.*

## 5. ANTOLAKETA

---

### LOT :

Hezkuntza zuzendaritzan gertatu postu aldaketak : Hastapen bateko gogoeta eraman zenean LOT ideki batean aitzineko urteetan, bi hezkuntza zuzendari behar ikusten genituen eta gaur egun proposatzen dena, zuzendari bat eta zuzendari laguntzaile bat. Zerk justifikatzen du aldaketa hori ?

*Les changements opérés au sein de la direction éducative : lors d'une réunion de LOT élargi les années précédentes, nous avons évoqué le besoin d'avoir 2 directeur.trice.s éducatif.ve.s. A présent il est proposé d'avoir 1 directeur.trice éducatif.ve et 1 directeur.trice adjoint.e . Qu'est-ce qui justifie ce changement ?*

**Aldaketa ugari izan da azken urteotan hezkuntza zuzendaritzan. 2022-2023 ikasturtean zuzendaritzako kideen artean lehen mailako zuzendari bilkurak eta bigarren mailakoak banatu ziren. Baina ikasturtean zehar ikusi dugu ezinbestekoa dela Hezkuntza zuzendariak lehen eta bigarren mailako zuzendaritza bilkurak segitu ditzan. 2023-2024 ikasturtean gisa horretan segituko dugu, eta zuzendari laguntzaileak beste misio batzuk segituko ditu, hautatua izanen denean zehaztuko ditugunak.**

*Il y a eu nombre de changements ces dernières années au sein de la direction éducative. Au cours de scolaire 2022-2023, les réunions des directeurs.trices des primaires et secondaires ont été réparties entre les membres de la direction. Mais en cours d'année, nous nous sommes rendus compte qu'il est essentiel que le directeur éducatif suive les réunions des directeur.trice.s du primaire et du secondaire. Durant l'année scolaire 2023-2024, nous continuerons ainsi, et le.a directeur.trice adjoint.e aura en charge d'autres missions que nous déterminerons lors de son recrutement.*

Seaska sarean gaur egun ehunka erakasle gira, ikastetxeetan hamarnaka langile eta Seaskako langileak ere hamarnaka. Giza baliabideetan berezitua den posturik ez dugu. Nola kudeatu honelako baldintzetan ?

*Il y a actuellement des centaines d'enseignant.e.s dans le réseau Seaska, des dizaines de salarié.e.s dans les ikastola et des dizaines de salarié.e.s à la fédération Seaska. Nous n'avons pas de poste spécialisé en ressources humaines. Comment gérer dans de telles conditions ?*

**Irakasleen kudeaketa Seaskatik egiten da. Langileen kudeaketa, kolegioan, lizeoan eta Seaskan zuzendariei dagokie Administrazio kontseiluen gidaritzapean. Lehen mailetan ikastoletako bulegoeri dagokie.**

*La gestion des enseignant.e.s se fait à Seaska. La gestion des salarié.e.s des collèges, lycée et de Seaska est sous la responsabilité du/de la directeur.trice en relation avec le conseil d'administration. Pour les ikastola, la gestion est sous la responsabilité du bureau de l'ikastola.*

## **ETXEPARE LIZEOA**

### **• 5.3 Gizabide baliabide kudeaketa / Gestion des ressources humaines**

« Talde bat muntatu giza baliabideen kudeaketan diren beharrak aztertzeko eta aterabide bat proposatu 2024ko azken Ikastolen Kontseiluan »

*« Mettre en place une équipe pour analyser les besoins en gestion des ressources humaines et faire une proposition pour le dernier Conseil des Ikastola de 2024 ».*

**Zoin da lehendakari baten funtzioa? Zuzendari batena? Diruzain eta idazkariarena? Seaskako kondulariarena? Zoin dira beharrak? 2022-2023 ikasturtean lan bat abiatu dugu batzuen eta besteen funtzioak argitzeko xedearekin. Lehen lan horren emaitza uztaila hastapenean aurkeztuko dugu lehen mailako lehendakari eta diruzainei. Bigarren maileri begira, irailean eginen dugu halako bilkura bat. Zuen galderari buruz mementu horretan eztabaidatzen ahalko dugu.**

*Qu'est ce que le rôle d'un.e. président.e. ? D'un.e. directeur.trice ? d'un.e. trésorier.e et du secrétaire ? des comptables de Seaska ? Quels sont les besoins ? Au cours de l'année scolaire 2022-2023, nous avons entrepris un travail visant à clarifier les fonctions des uns et des autres. Le résultat de ce premier travail sera présenté début juillet aux président.e.s et trésorier.e.s des ikastola primaires. Pour les secondaires, une réunion aura lieu en septembre. Nous pourrions discuter de cette question à ce moment-là.*

## **HENDAIA :**

Bostgarren puntuan, hau da, antolaketarena, 5.3 azpi puntua gehitzea nahi dugu, honek hurrengo esango du:

### **5.3. Ikastolei langileekin laguntzeko**

Ikastoletako langileak (Laguntzaileak, kantinaz arduratzen diren langileak... ikastola bakoitzaren elkarteak kudeatzen ditu, hortarako aukeratuak diren bolondresen bidez. Egunerokotasunean, batzuetan zaila bada ere, elkarte bakoitzak kudeaketa hori egiten du, Seaskako kondularien laguntzaz. Baina arazo larriak badirenean, ez dago lan zuzenbidean eta giza baliabideetan aditua den pertsonarik laguntzeko.

Hori dela eta, proposatzen da lan zuzenbidean eta giza baliabideetan aditua den pertsona bat kontratatatu edo azpi kontratatzea, ikastolek langileekin arazoak dituztenean laguntzeko eta kontsultatu ahal izateko. Modu honetan, ikastoletan langilez arduratzen direnak Seaskaren babesa izanen dute."

Nous demandons que soit rajouté au point 5 le chapitre :

### **5.3 : Gestion des ressources humaines :**

*Le personnel scolaire (ASEM, personnel en charge de la cantine) est géré par l'association Ikastola Association Locale (IAL) de chaque école par le biais de bénévoles choisis à cet effet. Au quotidien, même si c'est parfois difficile, chaque association assure cette gestion, avec l'aide des comptables de Seaska mais quand il y a des problèmes compliqués, il n'y a personne qui soit qualifiée en droit du travail et en ressources humaines pour nous aider.*

*Pour cette raison, il est proposé de recruter ou de sous-traiter une personne qualifiée en droit du travail et en ressources humaines que les ikastola pourraient consulter lorsqu'elles rencontrent des problèmes avec les salarié.e.s. De cette façon, les personnes en charge du personnel dans les ikastola auront la protection de Seaska."*

**Ikus aitzineko erantzuna, baita ere Aurrekontuen txostena.**

*Voir réponse ci-dessus et la notice explicative du budget.*

## UZTARITZE :

### Kontuan harturik :

- 84 ikasle ditugula,  
Gure ikastolaren ordezkaritza ez dugu segurtatzen eta biltzar nagusiaren helburuak ez dira betetzen (hala nola, gure iduriko, informazio eta gogoeta partekatuak).  
Gure ikastolan azken urteetako biltzar nagusietan egoera berdintsua bizitzen dugula eta IK-ko ordezkari postuak nekez betetzen direla (aurten bat eskas dugu), funtzionamendu orokorra aldatzeko eta gaurko errealitateari egokitzeko behar gorria ikusten dugu.
- Azken urteetako Ikastolen Kontseiluetan gure kezka eta gogoeta partekatu izan dugula, iazko Ikastolen Kontseiluan gure ikastolako bozka guztiak xuri atera ziren kolektiboki seinale bat adierazi nahi izan genuelako. Orduko, Seaska instituzioari doazkion funtzionamendu aldaketak gogoetatzeko beharra azpimarratu genuen (emendakin-erantzun joan jinen baliotasuna, IK-n dagoen parte hartzea eta bozken bilketaren emankortasuna...). Abenduko Ikastolen Kontseiluan ere lehendakaria harritu egin zen galdera edo ohar faltagatik. Interakzio eskasa, parte hartze apala, batzorde eragilearen osatzeko zailtasuna, dokumentuen aurkezpena, urte batetik bestera egitasmo bakoitzaren plangintzaren segipena... gure sistemaren osasun mailaren seinaleak ez ote dira? Noiz arte segituko dugu ahuleziak erakusten dituen eta gaurko beharrei egokitua ez den funtzionamendu batekin?

### En tenant compte :

- *Que nous avons 84 élèves,  
Que nous n'assurons pas la représentativité de notre ikastola et que les objectifs de l'assemblée générale ne sont pas atteints (échange d'information et réflexion partagée).*
- *Que dans notre ikastola, nous vivons la même situation ces dernières années pour les assemblées générales et que les postes de représentants IK sont à peine pourvus (cette année nous en avons un de moins), nous constatons un besoin criant de changer le fonctionnement général et de l'adapter à la réalité d'aujourd'hui.*
- *Que nous avons partagé nos inquiétudes et nos réflexions lors des derniers Conseils des Ikastola, lors du Conseil des ikastola de l'année dernière tous les votes de notre ikastola étaient blancs car nous voulions exprimer collectivement un signe. A cette époque déjà, nous avons souligné la nécessité de réfléchir aux changements de fonctionnement de l'institution Seaska (la validité du processus d'amendement-réponse, la participation au Conseil des Ikastola et l'efficacité de la collecte des votes...). Même au Conseil des ikastola en décembre, le président s'est étonné du manque de questions ou de commentaires. Une faible interaction, une faible participation, la difficulté de constituer le Conseil Exécutif, la présentation des documents, le suivi de la planification de chaque projet d'une année sur l'autre... ne sont-ils pas des signes du niveau de santé de notre système ? Combien de temps poursuivrons-nous avec un fonctionnement qui montre des faiblesses et qui n'est pas adapté aux besoins d'aujourd'hui ?*

**Ondorioz,**

- Dokumentuen azterketa eta emendakinen idazketa puntuz puntu ez egitea erabaki dugu. Sei gurasoen artean, beharrezko zilegitasun eta ordezkagarritasunik ez dugula uste dugu.
- Gure ikastolako gurasoei mezu bat idatziko dugu, gure posturaren berri emateko eta antolatua izango den bigarren Biltzar Nagusian parte hartzearen garrantzia azpimarratzeko. Gaur egungo IK funtzionamendua egokia ez bada ere, horrek arautzen eta biziartzat gaitu, eta gurasoek ulertu behar dute zein garrantzitsua den bertan parte hartzea (apustuak eta ondorioak). Haatik, ekainaren 22ko Biltzar nagusian korruma ez bada osatzen, uztailaren 1ko Ikastolen Kontseiluan Uztaritzeko ikastolaren parte hartzea galdezkatuko da.

**Par conséquent :**

- *Nous avons décidé de ne pas examiner point par point les documents et les amendements. Parmi les six parents, nous estimons que nous n'avons pas la légitimité et la représentativité nécessaires.*
- *Nous écrirons un message aux parents de notre ikastola pour les informer de notre position et souligner l'importance de participer à la deuxième Assemblée Générale qui sera organisée. Même si le fonctionnement actuel du Conseil des Ikastola n'est pas adéquat, il nous régule et nous anime, et les parents doivent comprendre à quel point il est important d'y participer (enjeux et conséquences). Par contre, si le quorum n'est pas atteint lors de l'Assemblée Générale du 22 juin, la participation de l'ikastola d'Uztaritze au Conseil des ikastola du 1er juillet sera remise en question.*

**Erabaki honen bitartez,**

- *Gaurkotzeko beharra duen sistema elikatzeari utzi nahi diogu.*
- *Gure ustez beharrezkoa den diagnostiko prozesuaren galdera plazaratu nahi dugu. Zenbat guraso Biltzar nagusietan, zein da antolaketa, zein dira eztabaidak, bizipenak...? Ikastolen Kontseiluaren egitekoa zein da : informazioak pasa arazi, gogoeta bultzatu, erabakiak elkarrekin hartu, bozkak bildu...?*
- *Ikastolen Kontseiluaren bitartez Seaskak duen funtzionamendua gogoetatzeko eta berrikusteko engaiamendua aztertua izan dadin eskatzen dugu.*

**A travers cette décision,**

- *Nous voulons arrêter d'alimenter le système qui doit être mis à jour.*
- *Nous voulons exprimer le réel besoin d'entamer un diagnostic. Combien de parents dans les réunions principales, quelle est l'organisation, quelles sont les discussions, les expériences... ? Quelle est la mission du Conseil des Ikastola : faire remonter l'information, susciter la réflexion, décider ensemble, recueillir les votes... ?*
- *Par l'intermédiaire du Conseil des ikastola, nous demandons que soit pris l'engagement d'examiner et de revoir le fonctionnement de Seaska.*

Ohar honek izan dezakeen ondorioa ezagutzen dugu, eta ahalik eta argien eta objektiboena izaten saiatu gara, gure urratsak eraikitzailea izan nahi baitu. Kontua ez da kritika hutsa egitea edo batzuei errua botatzea, federazioaren funtzionamendu ona **denen** ardura baita. Batzorde eragileak eta ikastolako gurasoek egiten duten lan guziaz kontziente gara, eta gure oharrak inplikazio horren baloratzea baizik ez du bilatzen, sistema arra-berrituz inplikazio hori are sendoagoa, indartsuagoa eta eraginkorragoa izan dadin.

*Nous sommes conscients des conséquences possibles de cette remarque, et nous nous sommes efforcés d'être les plus clairs et objectifs possibles, car notre démarche se veut constructive. Il ne s'agit pas de critiquer ou de blâmer qui que ce soit, car le bon fonctionnement de la fédération est de la responsabilité de chacun. Nous sommes conscients de tout le travail effectué par le Conseil Exécutif et les parents des ikastola, et notre remarque ne cherche qu'à valoriser cette implication, en rénovant le dispositif pour rendre cette implication encore plus solide, plus forte et plus efficace.*

**Ikastolen Kontseiluko dokumentoak aztertze 6 buraso bildu zaretela diozue Uztaritzen. Baina momentu berean beste 37 ikastoletan 5, 6, 10, 20 edo gehiago bildu dira ere dokumentu berdinen inguruan gogoetatu eta eztabaidatzeko. 2 500 familia eta 500 irakasle langile ziren gomitatuak lehen mailatik lizeoraino. Orotara 38 ikastolek eta ehunka jendek partehartu du ekimen kolektibo honetan eta emendakina eta oharren txosten hunek erakusten du gogoeta horren bizitasuna. Zein beste elkartek aitzina dezake halako partehartze kopuru bat barne gogoeta prozesu batean Ipar Euskal Herri osoan edo haratago ere ? Zergatik besteek ez duten parte hartzen ? Nola egin besteek ere partehar dezaten? Badakigu ez dela erraza, Ikastolen Kontseiluko gogoetetan, baina berdin hezkuntza taldeetan edo Hezkuntza Kontseiluan, edo Ikastolen bulegoetan edo Seaskako Batzorde Eragilean, edo ikastoletan antolatzen diren beste ekimenetan ere. Baina ez dezagun gutietsi, egiten den lana.**

**Proposatzen dizuegu uztailearen 1eko Ikastolen Kontseilu bukaeran tarte bat har dezagun, elgarrekin ideiak partekatzeko, bilkura horiek erakargarriago izan daitezen.**

*Vous dites avoir réuni 6 personnes pour analyser les documents du Conseil des ikastola. Mais au même moment, dans 37 autres ikastola, 5, 6, 10, 20 personnes ou plus se sont réunies pour réfléchir et discuter des mêmes documents. 2 500 familles et 500 enseignant.e.s étaient invité.e.s du premier degré au lycée. Au total 38 ikastola et des centaines de personnes ont participé à cette initiative collective et ce rapport de remarques et d'amendements témoigne de la vitalité de cette réflexion. Quelles sont les autres associations qui peuvent témoigner d'une telle participation à un processus de réflexion interne au Pays Basque Nord et ailleurs ? Pourquoi les autres ne participent pas ? Comment faire pour que les autres participent aussi ? Nous savons que ce n'est pas facile, pour les réflexions du Conseil des Ikastola, mais aussi dans les commissions éducatives ou au Conseil d'administration des ikastola, au Conseil Exécutif de Seaska ou dans d'autres initiatives organisées dans les ikastola. Mais ne minimisons pas le travail qui est fait.*

*Nous vous proposons de prendre un temps à la fin du Conseil des ikastola du 1er juillet pour ensemble partager des idées afin de rendre ces réunions plus attrayantes.*